

2007KO ABENDUAREN 27KO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

DEIALDIA: LEHENA
HASIERA ORDUA: ILUNTZEKO 7:00,
AMAIERA ORDUA: ILUNTZEKO 7.35

BERTARATUAK: Jesús Maria Fullaondo, Alkatea, Maria Jesús Azkúe, Pedro Arrizabalga, Leixuri Arrizabalaga, Jose Maria Markaida, Maite Elordui, Deitze Erkoreka Iñaki Aginaga eta Gotzon Arrieta.

Udaletxeko batzar aretoan, osoko bilkura bildu da, ohiko osoko bilkuran, aipatutako zinegotziak bertaratuta. Bilkura hasi ondoren, idazkariaren aldetik bilkura ahal izateko behar den gutxieneko kopurua izatea ikusi ondoren, gai zerrendan agertutako gaiei buruz hitz egin dute:

1. Arteko bilkuraren aktaren onarpena.

EAJ-PNVkoek ohar bat egin dute, 2007ko azaroaren 29ko osoko bilkurari buruz. Behin eginda, akta onartu da.

2. Alkate dekretuak jakinaraztea.

Honetaz ez dira oharririk egon.

3. Gizarte ekintzaren txostenen onarpena.

Idazkariak, Ainara Bergaretxek eginiko txostenak irakurrita, onartu dira. Beraz, onartu dituzte Gizarte Larrialdietarako Laguntza hauek:

- PMRK andrearentzat: 280.97 euroko dirulaguntza.
- CBL jaunarentzat: 452.82 eurokoa.

4. UEMAK egindako proposamenak

Aho batez onartu dute UEMAK aurkestitako "Gatikan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia" (2008-2009rako plan estrategikoa).

5. Haurreskola Patzuergorako ordezkari eta ordezeko berriak izendapena.

Aho batez onartu dute Jesús Maria Fullaondok egindako proposamena. Beraz, izendatu dute Jesús Maria Fullaondo bera Haurreskola Patzuergorako ordezkari eta Leixuri Arrizabalaga ordezeko.

6. UEMAKo ordezkari eta ordezeko berriak izendapena.

Aho batez onartu dute Jesús Maria Fullaondok egindako proposamena: izendatu dute Leixuri Arrizabalaga UEMAKo ordezkari berria eta Pedro Arrizabalaga ordezeko.

7. Premiazko gaiak.

a. Euskal Herria, nazio bat, selekzio bat

Aho batez onartu dute premia.

Deitze Erkorekak irakurri du mozioa:

“2007 urtea kirol esparruan, ofizialtasunaren bidean eginiko saiakeren eta aldarrikapen saioen aurkako erasoez ezaugarritu da batez ere. Catalunya eta AEBen arteko partidaren debekua justifikatzeko espainiar gobernuaren bozeramalearen adierazpenak, Luesmak 19 euskal federazioen estatutuak inpugnatu izana eta Euskal Herriko selekzioko jokalariek aldarrikapenerako Venezuelan ateratako pankartaren ondorioz jasandako lintxamendu mediatiko eta politikoak besteak beste.

Euskal herritarron eta gure ordezkari diren instituzioen aldetik, erantzun sendo bat eskatzen dute eraso guzti hauek. Euskal jendartean nagusiki hedaturik dagoen ofizialtasunaren nahi eta beharrak, instituzioen babesa behar du. Hau dela eta, eta abenduan sentimendu hau barnebiltzen dituen hainbat nazioarteko lehiak daudela eta, Udalbatza honek honako adierazpena egiten du:

1.- Euskal Herria, Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Zuberoak osatzen duten nazioa da. Nazioa den heinean, Euskal Herriko kirolariek beren nazioaren koloreekin nazioarteko txapelketetan parte hartzeko eskubidea dute.

2.- Instituzio honek eskubide horren zapalketa arbuiatzen du; batetik, kirolariei Euskal Herria ordezkatzuz beren koloreekin gainontzeko munduko nazioen moduan ofizialki lehiatzea ukatzen zaielako eta bestetik, euskal herritarrok nazioartean gure ordezkaritza izateko dugun eskubidea urratzen dutelako.

3.- Euskal Herriari ofizialki ordezkaturia izateko eskubidea ukatzen zaionean, Euskal Herriaren kanpo proiektzioa eta finean, bere nazio izatea ukatu nahi da. Euskal herritarron eskubide kolektibo eta indibidualen urraketa arbuiatzen du instituzio honek.

4.- Zentzu honetan, eta abenduaren 28an Euskal Herria eta Catalunyaren arteko partida

jokatuko dela eta herritarrei dei egiten diegu egun hori aldarrikapenerako eguna izan dadin, eta zehazki egun horretan Bilbon "EUSKAL HERRIA nazio bat, selekzio bat, gure eskubidea" lelopean burutuko den manifestazioan parte har dezaten.

5.- Udalbatza honek ordezkatzeko dituen herritarrak abenduaren 28an Bilboraino aldarrikapena eraman dezaten erraztuko du, bai eta honako akordioa herritarrei jakinarazi ere.

Moción

El año 2007, en lo que al plano deportivo se refiere, se ha caracterizado fundamentalmente por los ataques tanto a los intentos llevados a cabo para conseguir la oficialidad como a los intentos de reivindicar la oficialidad. Las declaraciones de la portavoz del Gobierno español para tratar de justificar el veto del partido entre Catalunya y EEUU, La impugnación de Paulino Luesma a los estatutos de 19 federaciones de la CAV y el linchamiento tanto político como mediático al que fueron sometidos los jugadores de la selección de fútbol de Euskal Herria en Venezuela.

Todos estos ataques merecen una respuesta por parte de la ciudadanía de Euskal Herria y de las instituciones que la representan. El deseo y necesidad de oficialidad tan extendida en la sociedad, necesita de cobertura institucional. Es por esto, y aprovechando que en diciembre se suelen jugar encuentros internacionales que recogen este sentir, este consistorio aprueba la siguiente declaración institucional:

1.- Euskal Herria es una nación formada por Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia y Zuberoa. En la medida en que es una nación, los deportistas de Euskal Herria tienen derecho a participar con sus colores en competiciones deportivas internacionales.

2.- Esta institución rechaza la conculcación de este derecho; por un lado porque a l@s deportistas se les niega el derecho representar a Euskal Herria con sus colores como el resto de naciones en competiciones de manera oficial, y por otro, porque a la ciudadanía de Euskal Herria se nos niega el derecho a ser representados a nivel

internacional como miembros de Euskal Herria.

3.- Cuando se trata de impedir que Euskal Herria compita a nivel internacional, lo que en el fondo se pretende impedir es la propia proyección internacional de Euskal Herria, en definitiva, tratar de negar el ser y existir de Euskal Herria. Esta institución rechaza esta conculcación de derechos tanto colectivos como individuales de la ciudadanía de Euskal Herria.

4.- En este sentido, y en vista que el día de diciembre se va a jugar el partido de fútbol entre Euskal Herria y Catalunya, hacemos un llamamiento para que ese día sea un día para la reivindicación, y en concreto, a que se tome parte en la manifestación que bajo el lema "EUSKAL HERRIA nazio bat, selekzio bat, gure eskubidea" recorrerá las calles de Bilbao.

5.- Este pleno facilitara el que l@s vecin@s del plueblo/ciudad puedan hacer llegar a Bilbao la reivindicación y hará conocedores de este acuerdo a l@s vecin@s.”

EA eta EAE-ANVkoak ados daude mozioarekin. EAJ-PNVkoak abstenitu dira. Leixuri Arrizabalgak azalpena eman du: guztiz ados daude Euskal selekzioaren ofizialtasunarekin. Beraien ustez, orain arte erabili den Euskal Selekzioaren kontzeptua lurralderen zazpi eskualdeak barneratzen dituela eta horrela erabili izan dela beste kirol esparruetan ere. Horregatik ez dute uste beharrezkoa denik selekzioa izendatzeko terminoa aldatzea.

Mozioa onartu da.

b. 18/98 epaiketa

Aho batez onartu dute premia.

Deitze Erkorekak irakurri du hona dagoena:

“55 auziperatu, 46 atxilotze agindu, 500dik gora espetxe urte. 18/98ko epaiak herri honen eskubideen ukazioan sakondu eta Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lanean ari diren herritar eta kolektiboak kriminalizatzeko oinarri berrituak ezarri ditu. Ez

da urrats isolatua, urte luzez Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoaren aurkako jazarpenaren segida da. Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoaren aurkako eraso estrukturala dago horren oinarrian, gero eta talde edo jarduera gehiago bere baitan biltzen duena. Gazteen aurkako epaiketa eta zigorra hortxe dago eta beste batzuk hasiko dira datozen hilabeteotan (Udalbiltza, Egunkaria, GGAA-Askatasuna, Batasuna)

Guzti honek estrategia jakin bati erantzuten dio, espainiar Estatuak, PSOEko Gobernuak, Euskal Herriaren eraikuntzako zutabe nagusiak kolpatzen ari da, konponbide demokratikoari ateak itxi eta independentziaren aldeko hautua kriminalizatzen.

Argi eta garbi esan dezagun. Ez dago demokraziarik, ez dago justiziarik. Gaur eta hemen espainiar Estatuak, PSOEko Gobernuak, herri honi eskaintza bakarra egiten dio: errepresioa eta Konstituzioa. Gaur eta hemen Konstituzioa inposatzen zaigu, Euskal Herria ukatuz, euskal herritarren eskubideak urratuz, gure etorkizuna libreki erabakitzeko eskubideari ateak itxiz. Gaur eta hemen, Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten duen orori, gatazkaren konponbide demokratikoaren alde lan egiten duen orori, herri honentzako independentzia nahi duen orori errepresioa ezartzen zaio.

Hori da PSOEren estrategia eta helburu jakina du, herri honi iruzur berri bat ezarri nahi dio. Gatazka luzatuko duen iruzurra, gatazkaren sorburu den ukazio marko hau indartzea duelako helburu. Gatazkaren konponbideari ateak ixtea bilatzen duen iruzurra, independentziari ateak itxita euskal herritarroi aukera politiko guztien artean gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea ukatzen digulako.

Une erabakiorra bizi dugu, aldaketa politikoaren ataria izan daitekena. Euskal Herriak ez du iruzur zahar berri bat onartuko, Euskal Herriak konponbide demokratikoa behar du. Eta horretara goaz, konponbideari ateak irekitzera, herri honek egitasmo politiko guztien artean, independentzia barne, erabakitzeko eskubidea errespetatua eta bermatua izan dezan.

18/98ko epaia zein Euskal Herriaren aurkako eraso orokorrari behar bezalako erantzuna emateko garaia da. Erasoen aurrean erantzun eta Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten jarraituko dugu. Eta hori da euskal herritar orori zabalitzen diogun deia.

Aipatu guztia kontutan hartuta honako mozioa aurkezten dugu udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan,

1. Udal honek irmoki salatzen du 18/98ko epaia eta atzean dagoen Euskal Herriaren aurkako eraso. Espainiar Estatuak, epai honen bitartez, Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lanean ari diren herritar eta kolektiboak kriminalizatzen ditu, Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoa jazartzen du. Independentismoa jokaleku politikotik atera nahi du herri honi iruzurra ezarri asmoz.

2. Udal honek argi adierazi nahi du: Espainiar estatuan ez dago demokraziarik ezta Euskal Herriarentzako etorkizunik ere. Espainiar estatuak bere Konstituzioa eta salbuespen legedia inposatzen du Euskal Herria ukatzeko, konponbide demokratikoari ezetz esateko, herri honen eskubideei ateak ixteko.

3. Udal honek konponbide demokratikoa aldarrikatzen du, euskal herritarrok egitasmo politiko guztien artean bere etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidean oinarrituko den konponbidea, hain zuzen ere. Hortaz, udal honek ez du onartuko herri honi iruzurrik inposatzea.

4. Udal honek bat egiten du Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiteagatik 18/98 sumarioan auziperatu eta zigortuak izan diren gizon emakume guztiekin, eta elkartasun zein babes osoa agertzen die.

5. Udal honek 18/98ko epaia eta Euskal Herriaren aurkako etengabeko erasoeri erantzuteko antolatuko diren mobilizazio guztiekin bat egin eta horietan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.

6. Udal honek Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten jarraitzeko deiarekin bat egin eta horretara animatzen ditu udalerriko talde, kolektibo eta herritar oro.

7. Onartutakoaren berri emango zaio herritar orori zein komunikabideei.”

EAE-ANV eta EAKoak bat etorri dira. EAJ-PNVkoak abstenitu dira. Mozioa onartu da.

8. Eskabide eta galderak

Jesús Maria Fullaondok esan du arteko osoko bilkuran aurkeztutako premiazko gaiak direla eta, idazkariari horiei buruzko txosten juridikoa eskatu diola. Idazkariak banatu eta irakurri du:

“Alkatetzeak 2007ko abenduaren 5eko probidentziaren bidez agindutakoaren arabera eta Toki Administrazioetako Gaikuntza Nazionalako Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duan irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 3.a) artikuluan eta Toki Araubidean indarrean dagozan Xedapenen Testu Bateginaren 54. artikuluan jasotakoa betez, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa, txosten hau egin dot.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- 2007ko zehazkiaren 29an, Gatikako udalerriko ohiko osoko batzarrean, EAE-ANV talde politikoak gai-zerrendan jasota ez egozan zenbait gai aurkeztu ebazan, eta zinegotziek horreek aztertzeko premia onartu eben, gehiengo osoz. Ondorioz, gai horreek eztabaidatu eta bozkatu egin ziran, artikulua honeetan jasotakoaren arabera:

- Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren ganeko araudiaren 91.4. artikulua, zemendiaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa:

“Ohiko batzarretan, gai-zerrendan jasotako gaiak aztertu ostean eta galderen eta eskaeren txandara joan aurretik, udalburuak itanduko dau talde politikoren batek, premia-arrazoiak dirala ta, deialdiko gai-zerrendan ez dagoan eta galderen eta eskaeren zatian sartzen ez dan gairik aurkeztu gura dauan, udalbatzak azter daian. Horrela balitz, gai hori proponiduten dauan taldeko bozeroaleak mozinoaren premia arrazoituko dau eta, segiduan, udalbatzak gai hori eztabaidatzea egokia dan ala ez bozkatuko dau. Bozketearen emoitza baiezkoa bada, araubide honetako 93. artikuluan eta hurrengoetan aurrez ikusitako prozedura segiduko da.”

- TEAFAJko 83. artikulua:

“Deusezak izango dira ezohiko batzarretan deialdian jasoten ez diran gaien ganean hartzen diran erabagiak eta ohiko batzarretan gai-zerrendan ez dagozan gaien ganean hartutakoak, kasu honetan izan ezik: jagokon erakundeak aurretiaz premiazkotzat jotea, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2. artikuluan aurrez ikusitako gehiengoaren aldeko botoagaz. ”

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2. artikulua:

“Korporazinokideen legezko kopuruaren **gehiengo osoaren** aldeko botoa behar da, gai honeen ganeko erabagiak hartzeko:

...

o) Legeak zehaztutako ganerakoak.”

Bigarrena.- 2007ko abenduaren 3an, Gatikako Udaleko alkatea dan Jesús María Fullaondo Alzibar jaunak txosten juridiko hau eskatu eutsan udaleko

idazkaritzeari, honakoa argitzeko: lehen aitaturako osoko batzarrean onartutako ezohiko puntuen artean, zeintzuk diran udalbatzaren eskumenekoak eta, bestalde, zeintzuk diran udalerriko alkatearen eskumenekoak, alkatea bera izanik horreen ganeko erabagiak hartzeko eskuduna.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Aplikau beharreko legeri jagokonez, arau hauek aplikau behar dira:

1. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dauzana, aurrerantzean TAOL: batez be II. tituluko II. kapitulua, udal antolakuntzeari buruzkoa, 19tik 24ra arteko artikulua.
2. Toki Araubidean Indarrean dagozan Xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa, aurrerantzean TATB: oinarrian, I. tituluko II. kapitulua, 18tik 24ra bitarteko artikulua.
3. 2568/1986 Errege Dekretuak onartu eban Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia, zemendiaren 28koa, aurrerantzean TEAFJA: II. titulua, I. kapitulua, 2. atala, 40tik 45era arteko artikulua eta 4. atala, 49tik 51ra arteko artikulua.

Bigarrena.- Osoko batzarrean eztabaidatutako lehenengo gaia honen ganekoa izan zan: udaletxean "Euskal Presoak Euskal Herrira" goiburua darian banderea ipintea.

Hori erabagiteko organo eskudunari jagokonez, kontuan hartu behar da aitaturako legeriak, hau da, aplikau beharrekoak, ez dauala horren ganeko ezer jasoten. Hori dala ta, araudi espezifikorik ez dagoanez, legeriak alkateri emoten deutson hondar-
eskuduntzara jo beharra dago, artikulua honeen arabera:

- TAOL 21:

“1. Alkatea korporazinoburua da eta eskuduntza honeek daukaz:

...

s) ... beste udal organo batzuei emonda ez dagozanak.”

- TEAFAJ 41:

“Alkatea da korporazinoburua eta atribuzino honeek daukaz:

...

13 ... beste udal organo batzuei emonda ez dagozanak.”

Hori guztia dala ta, eta, emondako azalpenean oinarrituta sinboloak ipintea (udalerriko banderea, entseina edo ezkutua izan ezik) alkatearen eskumena dala kontuan hartuta, osoko batzarraren barruan baina alkatearen beraren eskumenei buruzko mozinoetan oinarrituta hartutako erabagia danez, eta alkatea agindu-mandatuaren pean ez dagoanez, beraren erispidea izango da erabagi horreek burutzea edo ez burutzea, hau da, ezelan be ezin izango da planteau alkateak, udalbatzaren erabagiaren ondorioz, berarenak diran eskumen eta atribuzinoak burutzeari ixtea eta horretarako eskumenik ez daukan organoak hartutako erabagiak buru behar izatea.

Hirugarrena.- Bestalde, Jai Batzordearen ganean argitaratu gura zan informazino bandoaren puntuari jagokonez, batetik, artikulu honeek hartu behar dira kontuan:

- TAOL 21:

“1. Alkatea korporazinoburua da eta eskuduntza honeek daukaz:

...

e) Bandoak egitea.”

- TEAJAJ 41:

“Alkatea da korporazinoburua eta atribuzino honeek daukaz:

...

13. Bandoak egitea.”

Artikulu horreetan oinarrituta, azaldutako eskumenen banaketearen arabera, alkatearen eskumena da informazino-bandoa egitea eta ez udalbatzarena; izan be, eskumen hori ez dago jasota udalbatzaren esparruan.

Horrezaz ganera, kontuan hartu behar da azaldutako eskumena ezin dala eskuordetu, aitatutako artikuluetan azaldutakoaren arabera. Horrek arabere gehiago frogatzen dau udal korporazinoko buruaren eskumena dala.

- TAOL 21:

“3. Alkateak eskuordetzan emon leikez bere eskumenak; ez, ordea, osoko batzarraren eta tokiko gobernu batzarraren bilkuretarako deia egin eta horreetan buru izatea, bardinketa-kasuak kalidadeko botoagaz erabagitea, kreditu-eragiketak ituntzea, behargin guztien goi-buruzagitza betetea, funtzionarioak zerbitzutik kentzea eta behar-kontratupeko beharginak botatea, eta artikulu horretako 1. paragrafoko a), e), j), k), l) eta m) ataletan jasotako eskumenak. Halanda be, Tokiko Gobernu Batzarrari emon leikio j) atalean jasotako eskumenak beteteko eskuordetzea.

Era berean, mozino honegaz jarraituta, lehen azaldutako osoko batzarrean planteau zan bandoen ganeko eskumena alkateari jagokola, aitatutako araudiaren arabera. Hori dala ta, ezohiko gai hori plateau eban talde politikoak esan eban kasu horretan, bandoa argitaratu beharrean, bandoaren eduki bereko informazino-oharra egiteko eskatzen ebala. Gai horreeri jagokenez, lehen aitatutako legeria hartu behar da kontuan. Holan, TAOLek 22. artikuluan (artikulu horretan dagoz zerrendatuta osoko

batzarraren eskumenak) eta beste artikulua batzuetan ez dago jasota udalbatzak eskumena daukan informazio-oharrak egiteko; TEAFAJen 50. artikuluan be ez da horrelakorik jasoten.

Alkatearen eskumenari jagokonez, araudiak ez dau argi zehazten gai hori alkatearen eskumenekoa danik, baina, halanda be, udal teknikari honen eretxiz, legeriak emoten deutson hondar-eskumenaren arabera, gai horren eskumena alkateari emon behar jakola ulertzen da.

Aitatutako hondar-eskumenagaz lotuta, aurreko puntuan garatutako artikulua hartu behar dira aintzat, eta ondorio bardina atara geinke.

Laugarrena.- Ohiko osoko batzarren aldizkakotasunari jagokonez, lehenengo eta behin kontuan hartu behar dogu hori erabagitea udalbatzaren eskumena dala, TATBren arabera.

- TATB 47.1

"Tokiko korporazioek eurek ezarri ahal izango dabe batzarrak egiteko araubidea. Ohiko batzarrak egiteko egunak aurretiaz ezarriko dauz korporazioak."

Horrezaz ganera, gai horren ganeko hasierako erabagia hartzeko eskumena udalbatzak dauka eta, TEAFAJen arabera, ezohiko batzarrean hartu behar da erabagi hori:

- TEAFAJ 78.1:

"Ohiko batzarrak dira aldizkakotasuna aurretik ezarrita daukienak. Aldizkakotasun hori udalbatzak berak erabagiko dau, ezohiko batzarrean. Ezohiko batzar hori alkateak edo udalburuak deituko dau, korporazioa

eratzeko batzarra egin eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan; apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2 a) artikulua ezarritakoa betez, aldizkakotasun hori ezin izango da hiru hilabetekoa baino handiagoa izan".

Halanda be, kontuan hartu behar da erabagi hori aldatu egin daitekeela, osoko batzarrak geroago hartutako erabagiaren bidez. Hori jasoten dau Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen ganeko zehazpenaren 26ko 30/1992 Legeak VII. tituluko I. kapituluaren 1. artikuluan, administrazio-bidean egintzak aldatu eta berrikusteko aukerari jagokonez.

Bosgarrena.- Udalerriko plazan dagoan lokalaren erabilerearen ganeko mozinoari jagokonez (supermerkatuak erabili zan), udalak daukazan datuetan oinarrituta eta txosten honeri erantsiko jakon erregistro-oharraren arabera, udala ez da ondasun horren titularra, "Gatikako Herri Sustapenak" udal soziedadea baizik. Hori dala ta, ondasun hori udalarena ez danez, ez alkateak ez udalbatzak ez daukie eskumenik horren erabilerea zehazteko. Lokalaren titullarrak dauka eskumen hori, hau da, Gatikako Herri Sustapenak soziedadeak, eta soziedade horrek erabagi eta arautuko dau lokalaren erabilerea, estatutuen arabera.

Seigarrena.- Lehen aitaturako osoko batzarrak Ur Partzuergoaren ganeko gaia ere landu eban, ezohiko gai modura. Puntu horretan, alkateari eskatu jakon ahal eban guztia egiteko Ur Partzuergoagaz daukien akordioa aldatzeko. Gai horrerri jagokonez, udal teknikari honen eretziz, zuzenbidea oinarri hartuta egokiagoa da puntu zehatz hori eskaera modura hartzea, jagokon atalaren barruan, legeriak emoten dauan definizioaren arabera. Izan be, alkateari eginiko eskaerea da, ekintza zehatz bat egin daian.

Modu berean, aitaturako ezohiko puntuan, putzurik ez daukien pertsoneri zerbitzua ez kobretako eskatu zan. Horren ganean, kontuan euki behar da akordio hori ez dala udal eskumenekoa, eta puntu hori aldatzea Ur Partzuergoaren eskumena dala.

Udalerri hau partzuergo horrerik atxikita dago, besteak beste, TAOLen 87. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Holan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren geografi eremuko saneamendu sistema nagusiko hondakin-uren isuriak eta arazketea arautzen dauzan araudiak aplikazio-eremua ezarri eta hau adierazoten dau: "Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sarearen erabiltzaile guztiei eta etorkizunean horren parte izango diran guztiei aplikauko jake, aurretiaz ezarritako tramiteak betez."

ONDORIOA

Gertakari eta zuzenbideko oinarri honeek ikusita, sinatu dauanaren eretxiz, txosten honen arabera alkatearen eskumenen barruan sartzen diran eskumenak ezin dauz udalbatzak betearazo, alkatea ez dagoalako agindu-mandatuaren menpe. Alkateari ezin jakoz berarenak diran eskumenak kendu, berak eskumen horrekin eskuordetzea erabagiten ez badau behintzat, eskuordetze hori posible dan kasuetan, aplikau beharreko araudiaren arabera.

Halanda be, udalbatzak alkatea kontrolau eta fiskalizau leike, besteak beste, TAOLen 22.2a) artikulua emoten deitsozan eskuduntzen arabera.

Holan, aitatutako osoko batzarrean mozino modura aurkeztutako puntuak, txosten honen arabera, ez dira osoko batzarrearen eskumenak. Ondorioz, alkatearen eskumenak diranez, alkateari zuzendutako jarduera-proposamentzat hartu behar dira. Horren arabera, galderen eta eskaeren atalaren barruan sartu beharko ziran, artikulua honek oinarri hartuta:

- TEFAJ 91.4

"Ohiko batzarretan, gai-zerrendan jasotako gaiak aztertu ostean eta galderen eta eskaeren txandara joan aurretik, udalburuak itanduko dau talde politikoren batek, premia-arrazoiak dirala ta, deialdiko gai-zerrendan ez dagoan eta

galderen eta eskaeren zatian sartzen ez dan gairik aurkeztu gura dauan, udalbatzak aztertu daian.

- TEAFAJ 82

“Ohiko batzarren gai-zerrendan beti egongo da galdera eta eskaeren puntua.”

- TEAFAJ 97

“Batzarrak garatzeko eta korporazinoko kideen parte-hartzeen izaerea zehazteko, terminologia hau erabiliko da:

...

6. Eskaerea, udal gobernuko organoren bateri zuzendutako jarduera-proposamena egitea da. Osoko batzarrean eginiko eskaerak eztabaidatu ahal izango dira, baina ez dira inoz bozkatuko.

Korporazionoko kide guztiek eta udal taldeek bozeroaleen bitartez egin daikiez eskaerak.

Eskaerak ahoz edo idatziz egin daitezke eta, normalean, hurrengo batzarrean eztabaidatuko dira. Halanda be, batzar berean be eztabaidatu daitezke, alkateak edo udalburuak egokia dala pentsetan badau.

7. Galderea, osoko batzarrean gobernu-organoei itandutako edozein gai da. Korporazionoko kide guztiek eta udal taldeek bozeroaleen bitartez egin daikiez galderak. Batzar batean ahoz egindako galderei, normalean, hurrengo batzarrean erantzungo deutse galderen hartzaileak; halanda be, bat-batean be erantzun leike.

Idatziz egindako galderei hurrengo batzarrean erantzungo deutse galderen hartzaileak; halanda be, bat-batean be erantzun leike.

Hogeita lau ordu lehenago idatziz egindako galderei, normalean, batzar horretan erantzungo jake. Behar bezala arrazoitzen bada, hurrengo batzarrean erantzuteko aukerea be badago."

Horixe da nire eretxia, zuzenbidean hobeto oinarrituta egon daitekean beste erispiderik ezean."

Jose Maria Markaidak gogoratu du etxebizitza eta lan poltsa egin beharra dagoela. Era berean, galdetu du zelan dagien instantziarena. Jesús Maria Fullaondok esan die Amaiak ekarri dituela instantziak sarrera zenbakia emateko.

Arestian esanda dagoen moduan, 19.35ean osoko bilkura amaitu da.

Jesús M. Fullaondo Gatikako Alkatea	Chiara Camarón Gatikako behin-behineko idazkari- kontuhartzailea
--	--